

Hasi dira proiektuak aurkezten Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoko ikasleak

2008/06/11

Datozen bi asteetan Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoan parte hartu duten ikasleek euren proiektuak aurkeztuko dituzte. Guztira **16 proiektu** izango dira ekainekoak, eta honako izenburu hauek dituzte:

- Euskara Jendea dokumental bilakatzeko proiektu-proposamena.
- Aho bete kanta: diaporama.
- Bertsozale Elkartearen baloreen eta jardunaren transmisiorako komunikazio irizpideak.
- Kultura-ondare inmaterialen bilketa.
- Euskal Herria: migrazio handien lurraldea.
- Oiartzungo kulturgintza aztergai.
- Euskal bizitza kulturala herri txikietan.
- Bertso doinuak gizarteratzeko KDak.
- Euskal kulturgintzaren sustapena belaunaldi berrien aisialdian.
- Euskal kulturaren transmisioa Arizmendi ikastolan.
- Euskal kulturaren transmisioa diasporan XXI. mende hasieran.
- DBHko Euskara ikasgaiko edukiak kanten bidez lantzeko unitate didaktikoak.
- Bertsolaritzaren hedapena eta sustapena XXI. mendean.
Bertsolaritza hedabideetan: tratamendua eta kate-sarea.
- Berbaizu euskara elkarteak.
- Euskal dantzen unitate didaktikoa euskal curriculumean oinarritua.
- Euskararen balio ekonomikoa aztergai.

Guztira 60 ikaslek hartu dute parte Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoaren lehenaldi honetan.

